



BARREN

TOKIKOM

# Hemen dira Trinitateak



**PIVE KIA PLANA DENONTZAT**

**10  
EGUN  
KIA**

**ESKAITZA  
BEREZIAK**  
Ekainaren  
8tik 19ra



The Power to Surprise

**NAIA CAR**

Apalategi auzoa, 1  
Eibar. Gipuzkoa

[www.naiacar.com](http://www.naiacar.com)

Tel.: 943 70 70 33

Kontsumo konbinatua (l/100km): 3,5-7,6. CO<sub>2</sub> (g/km) isuriak: 92-177. Kontsultatu "Pive KIA Plana denontzat" eskaintzaren baldintzak Penintsulako eta Balearretako KIA kontzesionarioen sarean edo [www.kia.com](http://www.kia.com) webgunean. Eskaintza hau 08/06/2017 eta 19/06/2017 artean izango da soilik. \*Kontsultatu KIAren berritasun edukiora



erabili  
euskara  
utiliza el euskera

LANEAN  
IKASKETETAN  
SARE SOZIALETAN  
EROSKETETAN  
KIROLA EGITEAN  
FAMILIAN  
LAGUN ARTEAN  
JALETAN  
AISIALDIAN

CURSO  
**16/17**  
IKASTURTEA  
**UDAL**  
**EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak • clases de euskara



## UDA IKASTAROA

IRAUPENA: 80 ORDU

Ekainaren 26tik uztailaren 21era  
(3 ordu egunean)

Irailaren 4tik 15era  
(2 ordu egunean)

PREZIOA: 123€

Ikasle eta langabetuentzako  
prezioa: 77€

Bekatzeko sistema

**MATRIKULALDIA:** ekainaren 20ra arte  
DEBABE UDAL EUSKALTEGIA  
Kalebarren plaza, 2 – Tel.: 943 742 731  
ELGOIBAR

# zubacor


“Ondo pasa Trinitate jaiak”



Ibaitarte industrialdea 11 - Tel.: 943 740 844 - 20870 Elgoibar  
[zubacor@zubacor.com](mailto:zubacor@zubacor.com)



NORA KORTABERRIA



## “Kontua da gizartea bost zentzumenak ditugunoi egokituta dagoela”

**K**aixo, Nerea! Zer moduz? Gaur esnatzea kosta zait, ametsetan egin dut eta oraindik tentsioan nago. Ez dakit zuri, baina niri ikaragarri eragiten didate ametsek, eta normalean, nire goizetako umorea horien arabera izaten da. Sinestezina dirudi benetan bizi gabeko zerbaitek nola eragin dezakeen sentimendu eta emozioetan. Lo gaudela gertatzen dira, hortaz, zentzumenek eragindakoak dira hauek ere? Ez dakit, gai honetan galdu egiten naiz.

Askotan pentsatu izan dut entzun ezingo banu zenbat galduko nukeen, edo hitz egin ezingo banu, edo ikusiko ez banu... Bost zentzumenak normalak dira guretzat; hau da, ez ditugu baloratzen, ditugula ohartu ere ez gara egiten eta. Baina zenbat informazio ematen digu bostetako bakoitzak? Pila bat!

Joan zen astean lagun batek testu motz bat bidali zidan. Idaztea gustuko du, eta inspirazio iturri bat topatu bezain laster orri berri bat gehitzen du bere koadernoan. Gorrei egiten zien errefe-

rentzia, musikaz guztiz gozatu ezingo zutela esanez. Baina ondoren, berriz ere pentsatzen jarrita, ondorio batera iristen zen: *Gorrek musika beste era batean entzuten dute.*

Eta hala da, zentzumen bat ez dugun unetik ez dugu pertzepzio hori galtzen, beste modu batean jasotzen dugu musika, usain, laztan, zapora edo paisaia hori. Desabantaila bat iruditu ahal zaigu, baina ez dakigu benetan desabantaila edo abantaila den. Kontua da gizartea 5 zentzumenak ditugunoi egokituta dagoela, eta ez horietako baten ordeztu beste pertzepzio modu bat dutenei.

Baina tira, berriz ere lagunaren testura jota, agureak bere buruari buruz hitz egiten amaitzen du: *Beharbada ohartu zara irakurtzen zeunden unean, baina bai, itsua naiz. Gorrek musika eta beste hainbat gauza entzuteko moduak dituen bezala, nik mundua ikusteko beste begi batzuk ditut.* Eta zuk, Nerea, noizbait igarri al duzu errealitatea jasotzeko besteengandik ezberdina den modua duzula?



NEREA GURRUXAGA



## “Eta esango nuke, dudarik gabe, ikusmenari ematen zaiola garrantzi gehien”

**K**aixo, Nora! A ze gai interesgarria zentzumenena. Arrazoi duzu, gizarteak zentzumenak modu jakin batean erabiltzera (edo ez erabiltzera) bultzatzen gaitu, eta esango nuke, dudarik gabe, ikusmenari ematen zaiola garrantzi gehien, sarritan gainerakoak baztertzera heldu arte. Zenbat aldiz entzun dugu janaria begietatik sartzen dela lehenbizi? Ez da oso zentzuzkoa, usaimena eta dastamena kontuan hartu beharrean, hor ere ikusmenak garrantzi handiagoa izatea, baina hala da tamalez, askotan! Are gehiago teknologia berrien garapenarekin; izan ere, begirada pantailan murgildu eta hatz lodiak teklatura kolpatzen duen bitartean, beste zentzumen guztiak galtzen ditugula dirudi eta ez garela gai inguruan gertatzen denaz ohartzeko ere.

*La famille Bélier* filma ekarri didazu gogora, pertsona gorrez osaturiko familia protagonista duena. Familia horretan badago alaba bat ordea, entzun egiten duena, eta gainera, abeslari

izan nahi duena. Gurasoek ez dute batere gustuko ideia eta amak haserraldi batean kontatzen dio nolako disgustoa hartu zuten alaba jaio zenean, medikuek entzun egiten zuela esan zieten. Besteoi harridura eragiten digu, baina emakume horrek benetan uste du entzutea ez dela abantaila bat, eta bere alaba bera bezalako izatea nahi du, gorrek bezala ulertzea errealitatea. Zuk botatako galderari erantzunez, Nora, nik sentitu dut errealitatea jasotzeko modu jakin bat dudala, eta hori, feminismoak eman diit. Betaurreko moreen metafora erabiltzen da sarritan, baina Irantzu Varelari entzun nion bezala, betaurrekoak balira, kendu ahal izango nituzke, zinera joateko adibidez edo juergan irteteko. Tamalez edo zorionez, ez da horrela, eta Irantzuren metafora gehiago gustatzen zait: “kataratetatik operatzea”-rekin alderatu zuen berak kontzientzia feminista. Lehen argi ikusten ez nuena ikusten dut orain, eta ikusmenean bakarrik ez, zentzumen guztietan eragin didala uste dut.

MIKEL ARTOLA

Ekonomialaria



## Laugarren industria iraultza

errotu zuen, elektrizitatea, telefonoa edo eztanda-motorra bezalako berrikuntzekin. Hirugarrenak elektronika, automatizazioa eta Internet ditu ardatz, eraginkortasun tresnen, informazioaren eta sareen hazkunde itzela digitalizazioaren bidez ahalbidetuz.

Laugarren honek, hirugarrenaren sakontzea den honek, aldiz, iraultzen artean mendeak beharrean soilik hamarkadak daudela adierazten digu, egunerokoa dagoeneko iraultza etengabea ez bada! Makina, gailu eta pertsonen arteko konektagarritasuna muga infinitoetara darama, ekoizpen eta zerbitzuen erabilera eta sorreran jauzi espontziala eraginez. Teknologia gaitzaileak

deritzanak dira garapenaren iparrorratz sakratu berriak: elkarlaneko robotika, errealtate areagotua, ikusmen artifiziala, gehikuntzako fabrikazioa, Gauzen Internet, Big Data edo Cloud Computing.

Balio-kateen integrazioak eta etorkizuneko fabrikaren diseinuak enpresa bakoitzaren gogoeta burutsua behar du aurretik, egokitzapena edo estrategia proaktiboa goa sustatuz, balio-proposamena birpentsatuz, negozio-eredua birsortuz. Aukera sorta zabala, eta aukera berdinatsuna ere hor nonbait, teknologiak eskuragarri daudelako eta garatzaileen abantaila oraingoz ez delako erabatekoa. Harreman berriak eta paradigma berriak. Erroka paregabeak enpresentzat eta norbanakoentzat.

Zirkoak herri txikietara bezala gertatzen ari da laugarren industria iraultza, zaratatsu eta misterio apur batekin. Lehenengo iraultzak hirietarantz abiarazi zuen nekazaritza giroko gizartea, lurrun-makinaren bultzadaz eta metalgintzaren eta ehungintzaren garapenez. Bigarrenak, mundua zabaldu eta kate-produkzioa

*“Makina, gailu eta pertsonen arteko konektagarritasuna muga infinitoetara darama laugarren iraultza honek”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izaguirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Edurne Izaguirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

## LEIRE AGIRREBEÑA

*Elgoibartik kanpo bizi naizenetik, BARREnek laguntzen dit herriarekin harremana ez galtzen, eta BARREN Elgoibarko Izarrarena denez, egin zaitez bazkide!*

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## ► EKAINAREN 17

Ekainaren 17an hiru urte beteko dira Sare sortu zela. Urteurren hau momentu berezian kokatu behar dugu. Alde batetik, ikusi dugu nola jendartearen protagonismoa funtsezkoa izan den armagabetze prozesuan. Jendartearen mobilizazio eta protagonismoa funtsezkoa izango da baita ere preso eta exiliatuaren eskubideak errespetatuak izan daitezzen. Horrez gain, unea da aldarrikatzeke preso eta exiliatuaren eskubide guztien jabe izan behar direla gaurdunik, behin betikoz salbuzpeneko legeak alboratuz. Ez gara konformatuko 250 kilometroko espetxeetara ekartzen badituzte. Dagozkien eskubide guztien jabe, legeak betetzea besterik ez dugu eskatzen une honetan. Horregatik 0 km kanpainari ekin diogu. Donostian antolatuko diren tailer, ekintza eta ekitaldietan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Sare Elgoibar

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleaz datorren eskutitzik argitaratuko.




**Zergatik merezi du Elgoibarko Izarrako bazkide izateak?**



## Jesus Urain Arrona


"Caballito"

2017ko ekainaren 7an hil zen, 73 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Juan Larrea Garate

2017ko ekainaren 3an hil zen, 85 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Musika Bandak Celtas Cortos taldearekin joko du gaur zortzi Kalegoen plazan

Elgoibarko Udal Musika Bandak eta Valladolideko Celtas Cortos taldeak bat egingo dute datorren barixakuan Kalegoen plazan. Udal Musika Bandak eta herriko musikari talde batek iaz Maalako parkean eskaini zuten Rock Gauak izan zuen arrakastaren ostean, aurten ere bandak eskaintzen dituen ohiko saioetatik aldentzen den kontzertu bat eskaini behar zutela erabaki zuten arduradunek, bandaren kontzertuetara publiko "berria eta gazteagoa" erakartzeko asmoz. laz, Metallica, AC/DC, Scorpions, Deep Purple, Ken Zazpi edo Gatibu taldeen piezak jo zituzten, eta aurten ez dira faltako *Cuéntame un cuento*, *20 de abril*, *Tranquilo majete!* edo *Vamos!* abestiak; Celtas Cortos musika taldearen abesti ezagunetarikook, alegia. Celtas Cortos musika taldea 1986an sortu zuten Valladoliden, eta 1980ko hamarkadaren amaieran eta 1990eko hamarkadaren hasieran arrakasta handia lortu zuen folk, rock eta beste estilo batzuk nahastuz.

Gorka Mujika Udal Musika Bandako zuzendariordearen ideia izan zen Celtas Cortos taldearekin elkarlanean aritzea, eta berak zuzenduko du barixakuko kontzertua. Celtas Cortosek Donostian ere eskaini zuen kontzertua, Aste Nagusiaren barruan, Irungo Udal Musika Bandarekin batera. Kontzertu hartan parte hartu zuen Gorka Mujikak Irungo bandarekin, eta Elgoibarko Udal Musika Bandarekin ere antzerako kontzertu bat egiteko ideia proposatu zien kideei.



Elgoibarko bikote bat atxilotu dute droga salerosketa egotzita

Eibarko ertzain etxeko agenteek 32 urteko gizona eta 27 urteko emakumezko bat atxilotu zituzten joan zen astean Elgoibarren, droga trafikarekin lotuta. 1.800 anfetamina baino gehiago, hiru kilo eta erdi marihuana, speeda eta cristala atzeman dizkiete, besteak beste. Eta baita 40.000 euro ere, eskudirutan. Segurtasun Sailak jakinarazi duenez, Elgoibarren atxilotutako bikoteak Elgoibar, Eibar eta Ermua inguruan trafikatzeko zuten drogarekin, eta Gipuzkoako hainbat dantzalekuetako bezeroei ere saltzen zieten droga.

Errotuloak euskaraz jartzeko diru-laguntzak

Establezimendua identifikatzeko erro-tulu nagusia euskara hutsean edota irudi korporatiboa euskaraz edo elebitan jartzeko duenari diru-laguntzak eskainiko dizkio Elgoibarko Udalak, Euskara sailaren bitartez. Kostuaren %40ko diru-laguntzak emango ditu, eta gehieneko kopurua 200 eurokoa izango da. Informazio gehiago 943 74 43 66 telefonon. Eskerak aurkezteko epea urriaren 31n bukatzen da.

## Alemaniko 26 ikasle etorri dira Elgoibarrera, Institutuko ikasleen etxeetara



Karlsruhe (Alemania) hiriko 26 ikasle Elgoibarren izan ziren maiatzeko azken astean, Institutuak duen elkartruke programaren barruan. Elgoibarko, Mendaroko eta Debako ikasleen etxeetan egon dira, eta, besteak beste, inguruko herrietara, Bilbora eta Donostiarara egin dituzte bisitak. Ekainaren amaieran hemengo ikasleak joango dira Alemaniara.

## Euskararen erabileran bost puntu egin da behera Mendaron hogei urtean



Euskaldunen kontzientzia eragin eta euskararen arnasmuneak sendotzeko tailerraren bigarren saioa egin zuten martitzenean Mendaron. Udalak antolatu zuen tailerra, UEMArekin lankidetzan, eta Mendaroren indarguneak eta ahulguneak identifikatu, eta zuzendu edo hobetu beharreko puntuetan lehentasunezkoak zeintzuk ziren adostu zituzten tailerrera batutakoek. Egoera iraultzeko eta Mendaro euskaldunago egiteko, hainbat ekintza ere proposatu zituzten taldean, Eneritz Albizu UEMAko teknikariaren gidaritzapean.

Tailerrean parte hartu zutenak kezkatuta agertu ziren euskarak Mendaron izan duen apaltzearekin. Gero eta gazteago hasten dira haurrak erdaraz egiten eta euskaldunen artean, oro har, gero eta gehiago egiten da gaztelania. Euskaraz dakitenen kontzientzia apaldu egin dela nabarmendu zuten, euskararen aldeko ekimenik apenas dagoela eta herrira iristen diren etorkinek ez dutela sentitzen euskara ikasteko beharrik. "Garai batean Elgoibarrera Institutura hasten zirenean erdalduntzen ziren gure gazteak, 14 urterekin, baina orain Elgoibarrera joaterako erdaraz ari dira", jaso zuten ahulguneetan. Datuek egiaztatzen dute

sentsazioa baino gehiago dela. Soziolinguistika Klusterrak publiko egindako datuak eman zituen Albizuk. Euskararen ezagutzan bost puntu egin da behera hogei urtean, %73,4tik %68ra. Mendaroren erdiek lehen hizkuntza dute euskara gaur, baina 1991. urtean herritarren %70,1 ziren.

Dena ez da, baina, txarra. Mendarok herri euskalduna izateko potentzialitate handia dauka. Lan egiteko eremua badago eta dinamika handirik egon ez arren, dagoena euskaraz da. Zerbitzuak eta ikastaro gehienak, adibidez, euskara hutsean dira. Era berean, herriko denda gehienetan badakite eta egiten dute euskaraz, eta herrian badaude pertsona erreferenteak, eta haiekin beti euskaraz egiten dute euskaldunek.

**Egin zaitez bazkide!**  
**Elgoibarko Izarra**

**943 741 626**

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)



## Bihar Bilbora joateko deia egin du Gure Esku Dagok

Gure Esku Dagok ekitaldia egingo du bihar Bilbon, eta Elgoibarko Gure Esku Dago taldekoek elgoibartarrei dei egin diete ekitaldi horretan parte hartzera. Mobilizazio Nazionala egingo dute Bilbon, eta Herritarren Ituna aurkeztuko dute. Bestalde, Euskadi plazatik hasita, herritarrok osatutako mosaiko erraldoia egitea izango da helburua. Bilboko ekitaldian jendearen parte hartzea bermatzeko konpromiso-xartelak (2 euro) saltzen ari da Elgoibarko Gure Esku Dago taldea. Gaur Kalegoen plazan egongo dira 18:00etatik 20:00etara. Biharko ekitaldian puxika bana emango zaie parte hartzaile guztiei, eta ahal duenak Gure Esku Dagoren kamiseta janzteko eskatu dute!



Arg.: Bryan Barco

“Gustatuko litzaidake elgoibartarrek nire bideoklipean parte hartzea”

## ▶ VICENTE FRANCO ANGULO

‘PEPEFLOW593’

Vicente Franco Anguloren atzean *Pepeflow593* musikaria dago. Ekuadorren jaio zen duela 35 urte, eta 2010ean iritsi zen Elgoibarrera. Musikaria da, eta musikatik bizi nahi du. “Norbait” izan nahi du musikan, eta gogor dihardu lanean horretarako. Musika urbanoa egiten du. Berak sortzen ditu bere kanta eta ahotsa ere jartzen die abestiei. Kontzertuak ere eskaintzen ditu tardeka, eta orain bideoklip bat grabatu nahi du, Elgoibarren. Herriko hainbat gune erabiliko ditu irudiak hartzeko, baina Kalegoen plaza izango da eszenatoki nagusia. Ekainaren 16an grabatuko dute bideoa, 18:00etatik aurrera, eta herritarrei dei egin die grabazioan parte hartzera.

- AINHOA ANDONEGI -

### ◆ ‘Pepeflow593’. Nondik datorkizu artista izen hori?

Nire aita zenari *Pepeviche* esaten zioten. Ekuadorren *Pepe* esaten zaio auzarta denari, beldurrik ez duenari eta beti aurrera egiten duenari. Niri *Pepeviche txikito* esaten hasi zitzaizkidan. Orduan *Pepe* hartu nuen aitaren omenez, eta *flow* hitza jarri nion atzetik, erritmoari erreferentzia egiten diolako. 593 Ekuadorreko telefono zenbakien prefijoa da.

### ◆ Noiz hasi zinen musikan?

Umetatik gustatu izan zait musika. Quayaquil hirian jaio nintzen, munduaren erdi-erdian, eta hantxe hasi nintzen. Musika urbanoa egiten dut. Reggeaton bezala ezagutzen du jendeak, baina *merengue-mambo* estiloa da nirea. Hamar bat abesti dauzkat nireak, baina ezagutzera eman nauena *Cambio de tiempo* abestia izan da.

### ◆ Zuk egiten duzun musika estiloak ba al dauka zalerik Euskal Herrian?



Gero eta gehiago. Kontzertu dezente ematen ari naiz Euskal Herrian eta Errioxan ere abestu izan dut. Besteak beste, Bilboko Santana 27 aretoan abestu dut. Areto horretan musika estilo hau egiten duten musikari ezagun askok eskaini izan dituzte kontzertuak: Arcangel, Bad buny, David yankee... Elgoibarren ere abestu izan dut. Lehen Azpeitiko talde batean abesten nuen, eta talde harekin Gazte-txean abestu genuen. Bakarka ere aritu nintzen behin. Kiko Riverak Maalan kontzertua eskaini zuen asteburuan festa kubatarra antolatu zuten hurrengo egunerako, eta han abestu nuen nik.

♦ **Abesti berri bat daukazu orain, eta bideo-klipa grabatuko duzu Elgoibarren.**

Bai, nire abesti berriak *Una decisión* dauka izena, eta Elgoibarren grabatu nahi dut, jendeak jakin dezan nor naizen eta nondik natorren. Ekuadorren jaio nintzen arren, orain Elgoibarkoa naiz. Nire seme-alabak hemen jaio dira, Herri Eskolara joaten dira, eta gu hemengoak gara. Nire aurpegia erakutsi nahi dut, benetan nor naizen azaltzeko. Bideoklip horrek lagunduko dit nire burua aurkezten. Belaustegin hartuko ditut irudi batzuk, parrokiako arkupeetan beste batzuk, eta gainerakoa, Kalegoen plazan. Gavean Gabaz aretoan ere grabatuko dugu, eta han ere hartu dezake parte jendeak. Ekainaren 16an izango da, eta elgoibartarrei dei egiten diet nire bideoan parte hartzera. Kalegoen plaza jendez beteta agertzea nahiko nuke. Nahi duenak plazara agertzearekin nahikoa dauka. Gustatuko litzaidake herritarrek nire bideoklipetan parte hartzea.

♦ **Jendeak ezagutzen zaitu kalean?**

Bai, bai. Youtuben badauzkat bideo batzuk, eta sare sozialetan ere zabaltzen ditut. Herri Eskolara joaten naiz seme-alabak eramatera eta umeek ezagutzen naute; *Pepeflow* deitzen didate. Askoren-tzat eredu naiz. Azken batean dena nire kabuz egiten ari naiz, bakarrik ari naiz lanean eta hori kontuan hartzekoa da.

♦ **Zeri abesten diozu?**

Maitasunari abesten diot, maitemin-

duta nagoelako. Letra erromantikoak sortzen ditut. Gaur egun musika estilo honetan letra bortitzak erabiltzeko joera dago, baina niri hori ez zait gustatzen.

♦ **Reggeaton musikak zeresana eman du, emakumea azpiratzen duela-eta. Zer uste duzu?**

Bai, ados nago. Niri ez zait gustatzen. Nik sortu nuen abesti bat, *Ella está caliente* izenekoa, eta letra moldatu behar izan nion, ni neu ere konturatu nintzelako emakumeei begira ez zela egokia. Estilo honetako musika egiten dutenek bideoklip guztietan ateratzen dituzten emakumeak erdi biluzik, horrek saltzeko balio duelako, bereziki Hegoameriketako herrialdeetan. Baina ni ez nago irudi horrek saltzen duen lurraldean, eta hemengo arauak errespetatu behar ditut. Gainera, umeentzako eredu izan nahi badut, ezin dut irudi hori eman. Guraso batek ere ez luke hori babestuko. Nik maitasunari abesten diot, emakumeei, maite ditudalako eta ez dut haien irudia desitxuratu nahi.

*“Musikaz  
bizi nahi dut,  
nire lekua topatu;  
norbait izan nahi  
dut musikan”*

♦ **Zaila al da musikaz bizitzea?**

Nik momentuz ez dut lortu musikaz bizitzea. Abesti batzuk grabatzea lortu dut, baina ez da erraza. Momentuz nire burua ezagutzera ematen ari naiz, eta kontzertu gehienak doan eman ditut. Badakit hasierako etapa hau horrela izango dela, baina gogor ari naiz lanean. Musikatik bizi nahi dut, nire lekua egin nahi dut, norbait izan nahi dut. Logroñoan eman nuen kontzertua izan da jendeak ni ikusteko ordaindu duen bakarra. Kontzertu horri esker Bryan Barco ekoizlea ezagutu dut. Ikusentzunezko

ikasketak egiten ari da, eta berak lagunduko dit nire musika zabaltzen.

♦ **Noiz eta nola erabaki zenuen Ekuador utzi eta Europarako bidea hartzea?**

2008an etorri nintzen, nire arreba-aren bitartez. Burgosera iritsi nintzen, eraikuntzan lan egitera. Urte hartan hasi zen sektore horretan krisia, eta bost hilabete bakarrik iraun nituen nire lanean. Ez nuen beste lanik aurkitu eta Ekuadorrera itzuli nintzen. Sei hilabete geroago, berriz etortzea erabaki nuen, Espainian sartu ahal izateko dokumentazioa iraungitzeko egun bat falta zitzaidala. Hiru hilabete nituen lana aurkitzeko, baina ez nuen lortu eta paperak legez kanpo geratu zitzaizkidan. Baina ordurako Isabel ezagututa nuen, maiteminduta geunden eta bere familiari esker lortu nuen hemen geratzea. Bere lehengusu batek *Txato* ezagutzen zuen, eta haren bitartez Isabel lanean hasi zen Lanbroan. Horrela iritsi ginen Elgoibarrera. Isabel haurdu geratu zen, eta orduan ez ninduten Ekuadorrera bidali. Nire seme-alabak elgoibartarrak dira, eta oso gustura bizi gara hemen. Nire etorkizuna hemen dago, Elgoibarren. Herri lasaia da, denetarik daukagu, eta gustatzen zait hemen bizitzea. Orain legez ditut paperak, eta lasai bidaiatu dezaket, lan egin dezaket, baina ez daukat nire herrialdera itzultzeko asmorik... Denetariko lanak egin ditut: tabernari, igeltsero, Eroskiko langile ere izan naiz... baina nirea musika da, musika da nire ametsa.

♦ **Aurrera begira, zein proiektu dituzu eskuartean?**

Bryan Barcorekin egingo dut lan. Berak lagunduko dit ekainaren 16ko bideoklipa grabatzen, eta bere ardura-pean dauden musikari ezagunen telonero lanak ere egingo ditut. Abesti berriak sortzeko asmoa ere badaukat, abesti berririk gabe inork ez nauelako kontratatuko. Urte askoan ari naiz lanean eta prozesua luze doa, poliki, baina pauso sendoak ematen ari naiz, eta lortuko dut zeozer.

## ▶ JUNKAL TXURRUKA

EIBARKO UDALEKO  
EUSKARA TEKNIKARIA

Euskara irakasle hasi zen Junkal Txurruka Eibarren, Udal Euskaltegian, eta 2000. urtetik udaletxean dihardu lanean. Orduan alkate zen Iñaki Arriolari eta udaletzeko beste hainbat langileri euskara irakastea izan zen bere lehen eginkizuna, eta 2004an, euskara teknikari hasi zen. Elgoibartarra da izatez, eta euskara du afizio eta ofizio. Eibar euskaldunago egitea du eguneroko ardurua, eta azkeneko hilabeteotan burubelarri dabil Eibarko Hiriaren Euskararen Plan Estrategikoa aurkezteko baliaitu nahi duten ekitaldi handia prestatzen. Ez da edonolako erronka. Izan ere, Guinness errekorra ondu nahi dute ekainaren 22ko iluntzean, irudi baten eraldaketa kategorian. Gaur egun, Dubaik dauka errekorra, 2.300 lagunekin. (Izena emateko: [www.akebai.eus](http://www.akebai.eus)).

- AINARA ARGOITIA -



## “Hamar urtean ume eta gazteentzat den guztia euskaraz izatea nahi dugu”

♦ **Euskararen Plan Estrategikoa garatzeko eratu den Eibarren Akebai plataformak 2.500 lagun elkartu nahi ditu ekainaren 22an Guinness liburuan saritzeko. Lehenengoz egingo da Eibarren halako tamainako ekitaldi bat, zer eta euskararen alde. Zer da zehazki egingo duzuen?**

Asmoa da 2.500 lagun ez osatutako giza-irudia osatzea Untzagan, udaletxe aldeko plazan, eta irudi hori eraldatzea gero, logotipoa osatuz. 20:30ean izango da hori, baina jaialdia aurretik hasiko da. Auzoetatik etorriko da jendea Untzagara, kalejiran, eta han bakoitzak bere

lekua hartuko du. Berez, 6 urtez gorako edozeinek parte hartu dezake, baina izena eman behar da. Lehen Hezkuntzako ikasleek eskoletan eman behar dute izena, baina gainerakoek tabernetan, dendetan, Portalean edota Interneten, [www.akebai.eus](http://www.akebai.eus) webgunean. Udaletxeko plazan osatuko dugu giza-irudia, eta beste plazan, pantaila erraldoi bat jarriko dugu, ondokoan gertatzen ari den dena ikusteko. Hori dena, jakina, jai-giroan egin nahi dugu, eta musika eta abarrekin giroa dugu.

♦ **Lekua galdu badu ere, Eibarren izaren parte izan da beti euskara, eta**

**baita erronkazaletasun hori ere.**

Bai. Eibarrek berezko hizkuntza izan du beti euskara, eta galdutako lekua berreskuratu behar du orain. Era berean, herri erronkazalea ere izan da. Orografiatik hasita, herri zaila da, zuloan eta aldapaz inguratua dagoelako, baina hala ere, beti lortu du burua beste askoren ginetik ateratzea. Armak, bizikletak, josteko makinak, merkataritza, teknologia, futbola... Eibarko herriaren identitatean irudimena, indarra, kemena, eta aurrera egiteko harrotasuna daude. Indar hori badu Eibarrek, eta euskara izanda bertako hizkuntza

naturala, nola ez diogu helduko ba erronka horri?

♦ **Ekainaren 22ko erronka, baina, beste erronka handiago baten abiapuntua izatea nahi duzue. Zer dago guzti honen atzean?**

Eibarko Udalak 2016-2025 epealdirako onartu zuen Eibarko Hiria Euskararen Plan Estrategikoa. Plan hori Euskara Batzordetik izendatutako 50 bat herritarren parte-hartzearekin diseinatu zen, taldean eta EMUNek gidatuta egindako gogoeta eta baloraziotik abiatuta. Kezkatuta geunden, ez genuelako somatzen euskararen erabileran gora egiten zenik. Hiru bat batzarretan adostu genuen plan estrategiko horren bisioa izango zena, eta Udalak, bere aldetik, egitasmoa hamar urtez diruz laguntzeko eta hau guztia dinamizatzen pertsona bat jartzeko konpromisoa hartu zuen. Helburua garbia zen: hamar urteko epean, ume eta gazteen eremuak euskaraz funtzionatzen jartzea, eta horretarako, ume eta gazte horien ingurua – herritarrak, eragileak, elkarteak eta erakundeak – aktibatzea eta saretzea. 2016ko irailaren 26ko Osoko Bilkuran onartu zen egitasmoa, eta ulertu genuen aukera historikoa zela eta aprobetxatu behar genuela Eibarko Udalak hartutako hamar urterako konpromisoa.

♦ **Euskaraz jakin bai, baina egin ez. Herri askotan errepikatzen den kontua da. Eibarren ere bai, bistan denez.**

Bai, ikusten dugu gaur eskola dela haurrak euskalduntzen dituen. Eskolaz kanpo ere, aisialdi instituzionalizatua euskaraz da, baina gero, haurrek kirolera jotzen dutenean, euskarak galdu egiten du, begirale edo entrenatzaile guztiek ez dakitelako edo egiten ez dutelako, eta norbanakoen borondatearen menpe gelditzen delako euskara. Eta badakigu hori ez dela egun batetik bestera aldatzen, lan boluntario handia dagoelako hor, baina horregatik nahi ditugu horiek guztiak aktibatzea eta saretzea. Aldi berean ikusten dugu potentzialitatea gero eta handiagoa dela Eibar herri euskalduna izateko, gero eta euskaldun eta elebidun kopuru handiagoa duelako, eta horiek ak-

## “6 urtez gorako guztiek parte hartu dezakete hilaren 22ko erronkan, baina izena eman behar da”

tibatuz gero, euskara eramango dugulako gaur egiten ez den lekuetara.

♦ **Txosten mardul batean jaso duzue plana, eta izena ere halakoxea du Eibarko Hiria Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025. Eta erakargarri izango bazen, zerbait asmatu beharra zegoen, ezta?**

lazko azaroan, behin-behineko plataforma horren bileran, erabaki genuen taldea sortu behar genuela plana gizarteratzeko, halako izen luzedun planak edonor bota dezakeelako atzera. Eta halaxe, diskurtsoa eta komunikazio-ekintza prestatzeko, sei lagun elkartu ginen. Eibar ere oso anitza da, eta garbi geneukan eibartar guztiekin egin behar genuela bidea, eta jakina, jendea etorriko bazen, ezin ginela betiko mezuarekin, betiko matrakarekin, irten, betikoa eginez gero bagenekielako emaitza zein izango zen. Erakargarriak izan beharra genuen, eta horretarako, estrategia landu. Lan horretan izugarri lagundu zigun Estitxu Garaik, EHUko publizitate irakasleak. Estitxuk esan zigun garbi izan behar genuela zer lortu nahi genuen eta nori hitz egin nahi genion. Euskararen aldeko mugimendua edo euskalgintza gauza serio eta aspergarri moduan ikusten du jende askok; talde itxia eta politikoki lerrotatua gara askorentzat, eta apurtu behar genuen hori. Ekimen honekin informala izan behar zuen, herritarrak, anitza, irekia, parte-harzailea, positiboa, eraikitzailea eta ilusionantea.

♦ **Zein izan da eta zein da gaur egun Eibarko errealitatea, euskararen gaian?**

Orain dela ehun urte 10.000 biztanle zituen Eibarrek eta denek egiten zuten euskaraz, natural, esparru guztietan. Orain,

ehun urte geroago, 27.000 biztanle ditu Eibarrek, erdiak euskaldunak dira, baina ia denek gaztekeraz jarduten dute. Euskararen legea daukagu, dekretua, ordenantza, herritarren %51k esaten dute badakitela euskaraz, herritarren %70ek moldatzen direla, baina euskara ez da naturala, ez da berezkoa hemen. Naturala gaztelera da. Tartean egon dira urte txarragoak ere, 70eko eta 80ko hamarkadetan. Transmisioa ere eten zen urte haietan etxe askotan. Dena ez da txarra beraz, Eibarrek baduelako euskaraz egiteko gaitasuna, badu potentziala, badu ahalmena. Beraz, orain nahi duguna da ekainaren 22koa ondo irtezea, irailean elkartetara goazenean aurkezpen karta gisa erabiltzeko. Lortu behar dugu Eibarko herriak bere sentitzea erronka hau. Arnasgune bat sortu behar dugu, umeek aukera izan dezaten euskaraz modu natural eta normal baten berba egiteko.

♦ **Izenaren inguruan zalaparta handia sortu da. Kritikoek ez dute ulertzen kalako esapide oker bat erabiltzea euskaraz sustatzeko ekimen baterako. Zer duzu esateko?**

Izen askorekin ibili ginen, baina Akebaik guk proposatzen genituen ezaugarri guztiak biltzen zituen. Alde batetik, ikusten genuen probokatzailerak izan behar zela. Badakigu batzuk mintu ere egin direla, baina gure asmoa ez zen inor mintzea. Nik garbi daukat Akeba horren atzean dagoena dela garrantzitsua, eta gauzak ondo egiten baldin baditugu, hilabetera inor ez dela akordatuko izenarekin. Eibarren askotan zuzendu dugun esapidea da, bai, baina honekin adierazi nahi izan duguna da *A ke bai* esaten duenak ere bere lekua duela hemen, eta baita *a que sí* esaten duenak ere. Eibarren euskara erabiliko bada, denekin kontatu behar dela, eta beharbada ez dela euskara irakasleok nahiko genukeen euskara txukun, jasoa eta jatorra egingo, baina txukuna, jasoa eta jatorra latina zen garai batean eta begira non dagoen. Nahiago nuke Eibarrek hamar urte barru duen arazoa hori izatea: gazteek esaldiak *A ke bai* esapidearekin bukatzen dutela.

# Errebalen erromeriarekin hasiko dira gaur Trinitate jaiak

**Iritsi dira Trinitate Jaiak, eta azken urteotan bezala, ekin-tzaz beteriko asteburua izango dugu Elgoibarren. Ume, gazte zein helduentzako egitaraua prestatu dute eragileek, eta bakoitzak izango du non aukeratu. Mendaron ere ospatzen dira Trinitate jaiak, eta hain zuzen ere, Trinitate basilazaren inguruan izango dira ekin-tza gehienak. Trinitate jaietako egitarau guztia agendan duzue.**

- AINHOA ANDONEGI -

*Atabal elkarteko zuzendaritza berriak iaz hartu zuen danborradaren ardura.*



**E**kintzaz beterik dator Trinitate jaietako asteburua, eta urteroko ekintzez gain, berrikuntzak ere izango dira aurtengo egitarauan, tartean Elgoibarko Izarrak, Haritz dantza taldearekin elkarlanean, gaur iluntzerako antolatu duen erromeria gidatua. Errebal taldeak gidatuko du erromeria. Jokin Otamendi Errebal taldeko dantza-maisua eta gidaria plazako jende artean arituko da, zuzenean dantzak irakasten. Unean bertan ikasteko modukoak izango dira, oro har, dantzak, bikoteka eta taldeka dantzatzekoak. Antolatzaileek argi utzi dute, baina, ez dela ikastaro bat izango, baizik eta festarako erromeria. Dantzan ondo pasatzea izango da helburu nagusia. Euskal Herriko eta Europako dantzak tartekatuko dituzte repertorioan. 20:30ean izango da saioa, Maalako parkean.

## Nagusien danborrada, berriz gauetan

Atabal taldeko zuzendaritza berriak iaz hartu zuen danborradaren ardura, eta, besteak beste, danborrada berriz gauera ekartzea erabaki dute. Aurten, 23:00etan hasiko dira danborhotsak, Kalegoen plazan. Danborradaren gaiari dagokionez, C.D. Elgoibarren mendeurrena izango da aurtengo gaia, eta karroza futboleko motiboz apainduta egongo da. Horrez gain, erraldoi eta buruhandiak C.D. Elgoibarreko jokalariz jantzita irtengo dira danborradaren kalejiran. Erraldioen jantziak Paki Ferrerok egin ditu. C.D. Elgoibarko arduradunek, bestalde,

mendeurrenako pin bana emango diete danborradako kideei.

Urtero legez, Udal Musika Bandak hartuko du parte danborradan, eta berrikuntza modura, Txomin Mujikak C.D. Elgoibarren mendeurrenaren harira sortutako martxa joko dute. Horrez gain, omenaldi berezia eskainiko diete, iaz hil zen Mikel De Pablo elgoibartarrari. De Pablobak barrila jotzen zuen danborradan. Futbolzale eta Realzalea zen De Pablo. Hori dela-eta, Realaren ereserkia joko dute aurten danborradan, bere omenez. Era berean, maiatzean hil zen Fran Salazar ere omenduko dute, danborradako kide izan zelako.

Baina danborrada giroa goizean goizetik hastea eta bizitzea nahi dute Atabal taldeko antolatzaileek. Horretarako danborradaren zapiak saldu dituzte urtean zehar, eta herritarrei dei egin diete zapia lepoan jantzita irteteko kalera, San Bartolome jaietan egiten den bezala. Horrez gain, sukaldari txapelak banatu dizkiete ostalariei euren establezimenduak apaintzeko, eta herritarrei ere banatuko dizkiete. Futbolari lotuta, bestalde, Free Style erakustaldia antolatu dute. Kalebarren plazan izango da, 11:30etik 13:30era, eta nahi duten guztiek baloiarekin duten abilezia erakusteko aukera izango dute.

Atabal elkarteak, bestalde, ezagutzera eman ditu Sagardo Egunean zozketatu zituzten bi laguntzako bazkari eta afarien zenbaki sarituak: 1723 eta 1627. Irabazleak Eizaguirre okindegitik pasa daitezke saria jasotzera.

## Maalako Jai Batzordea Trinitateetan ere

San Bartolome jaietatik harago, Maalako Jai Batzordeak herriko beste jaien antolakuntzan parte hartzeko apustua egin du, "herrixak herrixantzako" balorearen ildotik. Hortaz, hainbat ekintza antolatu dituzte Trinitate Jaietarako. Zapatu eguerdian Elgoibarko baserrietako sagardo dastaketa egingo dute. Berderatzi baserrietako sagardoak izango dira aukeran: Azaola, Armazio, Zulueta Bekoa, Oanagusi, Lizundia, Upaegitxiki, Antsolabazterra, Olazarraga eta Gelasoro. Era horretan Elgoibarraren egiten diren sagardo desberdinak ezagutarazi eta balorean jarri nahi dituzte. Bi euroren truke nahi adina sagardo dastatzeko aukera izango dute herritarrek, eta baita gehien gustatzen zaienaren alde bozkatzeko aukera ere. Boto gehien jasotzen duenak makila jasoko du sinbolikoki, iazko irabazle Armazioren eskutik.

Gauean, bestalde, Erokeri taldearekin erromeria egingo dute Sutegixan 1:00etatik aurrera, eta parranda jarraitu nahi dutenentzat txokolate jana izango da 4:00etan.

## Domekan, umeen txanda

Domekan umek hartuko dute nagusien erreleboa, eta haien eskutik etorriko dira danbor hotsak. Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta, umeen danborrada izango da domekako ekitaldi jendetsuena: aurten, 290 umek hartuko dute parte. Karrozan 16



ume joango dira, 28 iñude-artzai, 105 barrilak jotzen, 88 danborrak jotzen, hamar kantinera, bi zuzendari, zaldi gainean ume bat, eta bandarekin musika jotzen, berriz, 40 ume arituko dira. 12:00etan hasiko da, Kalegoen plazan. Karroza ikusgarriren bat ekarriko dute aurten ere, baina azken unera arte sekretupean gordeko dute karrozaren gaia.

## Trinitateak ere Mendaron

### Trinitate basiliza inguruan ospatuko dituzte mendarotarrek Trinitate Jaiak

Gaur hasiko dituzte Mendaron Trinitate jaiak, Bizi-Poza txarangaren kalejirarekin, eta bihar, 17:00etan, jasoko dute arbola. Egunik handienak, baina, domeka eta astelehena izango dira. Domekan, txistularien kalejirarekin hasiko dute eguna, eta meza nagusia izango dute gero, 11:30ean. Elizako abesbatzak eta Ameikutz musika eskolako haurrek musikaz eta kantuz jantziko dute meza, eta Ion Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak girotuko dute meza ostea. Eguerdi aldera herri kirolak izango dira, eta horrekin amaituko dituzte domekako ospakizunak.

Astelehena izango da Trinitate Eguna, eta meza nagusiarekin hasiko dituzte eguneko ekitaldiak, 11:00etan. Ondoren, ikastolako haurrek bertso jaialdia eskainiko dute, Laja eta Larrañagaren trikiti soinuek lagunduta. 14:30ean, Toki Alai jate txean bazkaria egingo dute. Gauean, berriz, afaria egingo dute Aizpen. Ion Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak eta bertsulariek gi-



rotuko dute afalostea. Tikitak salgai daude Toki Alai, Aitz Beltz eta Txirristaka tabernetan, 25 euroan.

# Azoka berezia

## TOMAS URGOITIA Ziardatxiki Goikoa baserrikoa

**Ibarrangeluko (Bizkaia) baserri batetik Aiastiako Zirardatxiki Goikoa baserrira ezkondu zen Tomas Urgoitia. Mekaniko lanak eta baserriko jirak uztartu ditu urte askoan, baina orain, beste patxada batean bizi da, erretiroa hartuta. Ganadu zalea dela dio, eta arraza guztietan, Limousinak ditu gustukuen. Trinitate azokara etxeko buru guztiak jaitsiko ditu.**



“Asko hobetu da Trinitateko ganadu azoka”

### ◆ Limousina arrazako ganaduekin jaitsiko zara azokara. Zergatik limousinak?

Lehen, esne-behiak izan nituen, baina haiek kendu eta okelatakoak hartu nituen orain hamabost bat urte, behar gutxiago ematen dutelako. Esne-behiak diru gehiago lagatzen du, orduan bai behintzat, baina goizean goiz jaiki eta beharrera orduko jeitzi egin behar izaten ziren haiek, eta iluntzean berriz. Lotua da. Arraza ona da limousina, noblea eta eskuarterako onena, eta produktioari begira ere oso ona da, denbora gutxiagoan beste arraza batzuetakoek baino askoz kilo gehiago hartzen dutelako.

### ◆ Zenbagarren urtea izango duzu hau?

Hemeretzigarrena-edo. Hasiera-hasieratik joan naiz ni, eta behin bakarrik egin dut fallo. Lehenengo urtean, Armuetakoak eta geu joan ginen hemendik, eta ordutik hona asko mejoratu da azoka, ganadutan batez ere, limousinetan. Gustatzen zaigu mundu hau eta horregatik etorzen gara, eguna pasatzera. Aurten pena daukat, baina, Etxebarriko azoka egun berean delako. Zer bait

pensatu beharko lukete, bi azokak egun berean jartzeak biegi egiten dielako kalte.

### ◆ Noiz hasiko duzu eguna zapatuan?

5:00ak aldera. Etxeko buru denak eramango ditut, hamahiru, eta honek denak preparatzeko denbora behar izaten da, kalera norbera joaten den legez eraman beharko ditugulako, garbi eta itxuroso. Kalea eskaparatea da. Jende asko ibiltzen da begira.

### ◆ Saltzen da zerbait azoka hauetan?

Inoiz saldu dut bakarren bat, baina erakusteko izaten da gehiago. Aurten bi bigantxa dauzkat saltzeko. Kaleko jendeari ganadua zer den erakustea izaten da gehiago, batzuentzat denak direlako behiak. San Migel jailetan gure etxeko idisko gazteak zozketatu izan ditugu urteetan, eta potro galantak bistan izan arren, jende askorentzat behiak izan dira.

### ◆ Zer da baserrian bizitzea?

Beharra sendo egin beharra. Sekula ez dira amaizten baserriko lanak. Egin eta egin, eta ezer ikusi ez, eta norberak egin ezean, beste inork egin ez!

### GARAIAK GARAIAK PRODUKTUAK:

- **Barazkigileak:** (Txillarre, Lizundiatxabola, Basartesoroeta (Basueta), Egigurentxiki, Miriam Onaindia.
- **Gaztagileak:** Madarizurieta (Mausitxa), Lizundiatxabola, Mintxeta

### GANADUZALEAK:

Aiastitxiki baserria (Pirenaika), Berdezkunde baserria (Pirenaika), Orube baserria (Limousina eta Mestizo beltza), Ziardatxiki Goikoa baserria (Limousinak), Agerre baserria (Katxinak eta Asturiarrak), Irunagasoro baserria (Betizuak). Astoak (Akei), Astoak (Irunabe) Zaldi Arabiarra/ Zaldi Hispano Arabiarra (Juaristi) Euskal Herriko Mendiko Zaldiak (Artesoro), poniak (Irunagasoro), pottokak (Irunagaberrri). Sasi ardiak (Irunagasoro), Ardi Mutur Beltzak (Madarizurieta), Ardi Mutur Gorriak (Sagarraga), Ardiak Berrichon (Iriarte), Ahuntz Azpi Gorriak (Irunagasoro), Ahuntzak (Urruzuno), Ahariak (Sagarraga), Ahuntz Enanoak (Aristegi) Txerriak (Aozar Baserria), Lumagorri oilaskoak, Karobi oilaskoak (Asier Rubio). Urruzuno Baserria: Hegaziak (Ahate mutuak, Gineako oiloak, Indioilar beltza, antzarak, Euskal oilo zilarra, Euskal oilo marraduna) eta Untxiak.

## ARTISAU AZOKA, DOMEKAN

Domekan artisauek azokak hartuko du Lekuederreko parkea. Goizeko 10:00etatik 14:30era bitartean denetariko artisauek lanak ikusi eta erosteko aukera izango da.

### BITXIAK

- Amalur Urresti
- Amaia Erkizia
- Aleksandra Kupiszewska
- Txus Txus
- Begoña a los 40
- Maider Mendinueta

### EHUNAK

- Idoia Gabantxo
- Lorena Ibeas
- Maria Luisa Liceaga

### EGURRA

- Kromosoma tailerra
- Bittor Arrieta

### ERREMENTARIA

- E-Mendi

### PILOTAGILEAK

- Mari Carmen Irazabal

### ESKULANAK

- Rosa Freire
- Panpoxak
- Nieves Maidagan
- Jose Membrillera

### LARRU LANAK

- E-Mendi
- Red Masai
- Larrutan
- Larrutan Atelier del cuero

### XABOIGINTZA

- Ana Mosacua
- Ana Sanchez

### KREMAK

- Nagore Insausti

### OTARGINTZA

- Iñaki Agirrezabala

### FOTOZERAMIKA

- Alaitz Andonegi

## Jasone Osorok 'Eskularru Beltzak' liburu bilduma aurkeztu du



Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibartarrak *Eskularru beltzak* liburu bilduma aurkeztu du. Gazteentzako bilduma izango da, eta lau liburukitan argitaratuko du. Lehen liburukiak bildumaren izenburu bera darama. Boxeoa izango du oinarrian, baina muturrak txikitzeko kirola baino gehiago, boxeoren bizi jarrera: hau da, kolpeak jasotzean, zutitzea eta aurrera jarraitzea. Urtean bi liburuki plazaratzeko konpromisoa hartu du egileak, eta udazkenean argitaratuko du Elkarrek bigarrena; *Casting-a*. Institutu bateko ikasleak dira protagonista. Beraien arteko harremanak, abenturak, maitasuna, jelsia bezalako gaiak agertuko dira liburuetan, baina baita beste hainbat gai ere, hain agerikoak izaten ez direnak: barne-segurtasun eza, gazteen ahuleziak eta kemenak, eskola jazarpena, harrera etxeak...

## Enpresetan euskara sustatzeko diru-laguntzak

Eguneroko lanean euskararen erabilera bultzatzeko urratsak eta ekintzak martxan jartzera animatu nahi ditu enpresak Elgoibarko Udalak, eta horretarako, diru-laguntzak emango ditu. Gehienez ere, 2.000 euroko diru-laguntza emango die euskara sustatzeko ekintza edo egistamoak martxan jartzen dituzten enpresei. Interesatuak urriaren 31ra arteko epea izango dute laguntzak eskatzeko. Diru-laguntza hauen oinarriak eta diru-laguntza eskabidea egiteko inprimakia Kultur Etxean (Euskara Sailean), Herri-tarrentzako Arreta Bulegoan edota [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean eskura daitezke.

## Kiribilen gaurko saioa Kalegoen plazan izango da

Elgoibarko Izarrak antolatzen duen Kiribil egitasmoaren gaurko saioa Maalako parkean izango zela iragarri zuten arduradunek, baina Kalegoen plazan egingo dute. Kiribilen ostean, pailazo emanaldia izango da, Ludo Ibiltaria egitasmoaren barruan.

## Maila handiko artelanak aurkeztu dituzte Kaleko Margo Lehiaketan

Kaleko Margo Lehiaketa egin zuten zapatuan Elgoibarko kaleetan eta parte hartu zuten margolariak "maila handiko" artelanak aurkeztu zituztela jakinarazi du Egur arte tailerrak. Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako hamar margolarik hartu zuten parte, eta Jorge Lopez gasteiztarrak aurkeztutako margolanak eskuratu zuen lehen saria (800 euro). Aurten, herriko lan onena ere saritu dute estreinakoz, eta Santiago Alconadak irabazi zuen sari hori (200 euro). Lan guztiak ekainaren 10era arte egongo dira ikusgai, Kultur Etxeko sotoan.



## Ehun bat lagun bildu zituen Hellgoibarko Metal Gauak

Hellgoibarko Metal Gaua antolatu zuen Sinuosek joan zen barixakurako, bosgarren urtez jarraian. Bilboko Quaoar eta Madrilgo Adrift taldeak gonbidatu zituzten. Antolatzaileek esandakoaren arabera, ehun bat lagun batu ziren Maalako parkean, eta ikusleak "gustura" geratu ziren. Talde bakoitzak ordu beteko kontzertua eskaini zuen, eta aurreikusita zegoen bezala, 1:30erako isildu ziren metal doinuak. Sinuoseko kideek esan dute bi taldeek maila ona eman zutela, eta ikusleei kontzertua laburra egin zitzaizela: "Seinale ona", gaineratu dute. 15



## Euskal Herriko arku tiraketa txapelketa egingo dute zapatuan Mintxetan

Elgoibarko Zarta Arkulari Taldeak eta Gipuzkoako federazioak antolatuta, Euskal Herriko Arku Tiraketa Txapelketa jokatu dute zapatu honetan, hilaren 10ean, Mintxetako igerilekuen ondoko zelaian. Arku tradizionalen eta biluzien Euskal Herriko Txapelketa izango da Elgoibarren jokatu dutena. Zehatz esanda, arku intintiboeak, Longbow erakoek eta arku biluziek parte hartu ahal izango dute. Aire Zabaleko Arku Tradizionalaren araudia, Espainiako Federazioarena, erabiliko dute txapelketan. Dianak 80 eta 40 zentimetrokoak izango dira eta jaurtitzailereangandik 18 eta 30 metrora egongo dira. Zartakoek 60 parte hartzailetik gora espero dituzte. Mintxetako futbol zelaian egin nahi zuten txapelketa, baina belar artifiziala



aldatzeko lanetan ari direla-eta, igerilekuen gainaldean dagoen berdegunean egingo dute. 14:30ean hasiko da.

## Iñigo Ortuoste nagusi Azkoitiko Duatloian, beteranoetan

Azkoitiko XVIII. Duatloia jokatu zuten zapatuan, Azkoitri Triatloi Klubak antolatuta. Xabier Tijerok (00:53:55) eta Natalia Gomezek (01:02:17) irabazi zuten. Beteranoen artean, 50 eta 60 urteko adin tartean, Iñigo Ortuoste elgoibartarra izan zen azkarrena, 01:02:34ko denborarekin. Parte hartzaileek bost kilometro saltaka, 20 bizikleta gainean eta beste 2,5 kilometro korrika egin zituzten.



## Joseba Etxeberria Amorebietako entrenatzaile berria

Joseba Etxeberriaren (Elgoibar, 1977) entrenatzaile ibilbideak aurrera darrai eta Bigarren B Mailako talde bat, S.D. Amorebieta, gidatuko du hurrengo denboraldian. Bilboko Athleticen hirugarren taldea den Baskonia Kirol Kluba entrenatu du amaitu den denboraldian, Hirugarren Mailan (IV. multzoa). Basauriko taldea hamargarren postuan sailkatu da elgoibartarraren aginduetara. Joseba Etxeberria 2012. urteaz geroztik entrenatzaile lanetan aritu da Athleticen, kadeteetan lehenik, jubeniletako bi taldeekin gero, Ernesto Valverderen laguntzaile izan zen orain bi denboraldi lehen taldean, eta, Baskonia entrenatu du 2016-2017 denboraldian.



## Xabier Loiolak bigarren amaitu du Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa, irabazlearekin berdinduta



Hamar jardunaldiren ostean, Floreaga taldeko Jose Muñoz azkoitiarra izan da bolaririk erregularrena Gipuzkoako 48. hiru txirlo bola joko txapelketan. 40 txirlo botata irabazi du txapela. San Migel taldeko Xabier Loiola izan da txapelondurdea, honek ere 40 txirlo botata. Eibarko Asola Berri bolatokian jokatu zuten azken jardunaldian, berdinketa hausteko hainbat jaurtiketa egin zituzten Muñozek eta Loiolak, eta lehia estua egon bazen ere, azkenean azkoitiarra gailendu zen. Xabier Loiolak sailkapen nagusian lortutako bigarren postuari Unai Loiolak lortu zuen laugarren postua batu behar zaio. Bikotekako sailkapenean Xabier Loiola eta Angel Ibarluzea elgoibartarrek osatutakoa izan zen irabazlea, 72 txirlorekin, eta hirugarren postuan sailkatu zen Unai Loiolak eta Jabier Osorok osatutako bikotea (66 txirlo). Taldeko San Migel A taldea (goiko argazkian) izan zen onena, guztira 164 txirlo botata.



## Laukok ezin izan zuen Kopa irabazi



Lauko senior emakumezkoen eskubaloi taldeak ezin izan du denboraldia titulu batekin agurtu. Gipuzkoako Kopako finalean 26-31 galdu zuten Bera-Bera taldearen aurka, Donostian. Sanlotik jakinarazi dutenez, partida ona jokatu zuten elgoibartarrek eta hiru goleko errentarekin (14-11) ailegatu ziren atsedendira. Bigarren zatian, baina, donostiarrak izan ziren nagusi eta epaileek hartutako zenbait erabakik ez zietela lagundu gaineratu dute Sanlotik. Kadete nesken Astigarraga GYS taldeak Zumaiko Pulpo taldearen aurka zapatuan Olaizaga kiroldegian (11:00) jokatuko duen neurketa izango da Sanloko talde batek denboraldi honetan jokatuko duen azkena. Gero, "Sanloren familia" osatzen duten entrenatzaile, babesle, guraso eta gainerako lagunek Sanlo Festarekin esango diote agur denboraldiari. Ekainaren 17an izango da, Sigmako aparkalekuan.

## Mendaroko Kirol Egunak 130 ume batu zituen



Kirol Eguna egin zuten aurreko zapatuan Mendaron, Arno guraso elkarteak antolatuta. HH2tik hasi eta LH6 arteko 130 ume inguru batu ziren goiza jolasean pasatzeko. Taldeka banatuta, Mendaroko ikastolako patio handia ginkanarako gunea izan zen, eta patio txikia, HH2tik HH4 arteko neska-mutilentzako jolas gunea.

## Emaitzak

### ESKUBALOIA

Bera Bera 31 – Lauko Elgoibar 26 (senior emak. Gipuzkoako Kopako Finala.)  
Pulpo 19 – Elgoibar Sanlo 21 (Aleb. nes.)

## Agenda

### ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 10  
11:00 C. Astigarraga GYS – Trapaia Taberna Pulpo (Kad. nes.)

## C.D. Elgoibarren paella jana

Futbol denboraldiari amaiera emateko paella jana antolatu du C.D. Elgoibarrek ekainaren 24rako. Maalako parkean egingo dute eta bazkide, guraso, jokalarik eta entrenatzaileez gainera, nahi duten zaletu guztiek izango dute paella janean parte hartzeko aukera. Bazkari txartelak, ekainaren 18ra bitartean salduko dituzte Jai-Alai tabernan edo Kaia kafetegian. Nagusientzako txartelak 15 euroan salduko dituzte eta 6 euroan gazte eta umeentzakoak.

## Kirol argazki lehia abian da

Haur eta Gazteen Sustapeneko Sailak eta Kirol Patronatuak hamabigarren kirol argazki lehiaketa antolatu dute profesional zein zaleentzat, Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan. Papereko argazkiak, koloretan nahiz zuri beltzean eta tratatzeko edozein teknika erabili onartuko dituzte. Bakoitzak gehienez lau lan aurkeztu ditzake uztailearen 17a baino lehen helbide honetara: Olaizaga kiroldegia, 32 posta kutxa. San Roke kalea. 20870 Elgoibar.

## Hasi dituzte Mintxetako belar artifiziala aldatzeko lanak

Maiatzaren 25ean hasi zituzten Mintxetako futbol zelaiako berdegune artifiziala aldatzeko lanak. Nazioarteko Futbol Federazioak (FIFA) ematen duen ziurtagiria duen berdegunea jarriko dute, bi izarrekoa, hain justu ere. Elgoibarko Udalak uztailearen 2rako berdegune berria prest egotea espero du, aurre-denboraldian Realak eta Haundik jokatuko duten lagunarteko partidarako. Partida hori uztailearen 15ean jokatzea aurreikusita dago. Mintxetatik kenduko duten belar artifizialaren zatirik handiena Herri Eskolara eramango dute, zenbait berdegune egiteko.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Interna moduan egoteko prest.  
☎ 666 324 757

Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna. Gida baimena dut.  
☎ 689 571 882

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ 655 094 780

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Erreferentzia onak ditut, eta zortzi urteko esperientzia.  
☎ 638 857 100

Portalak edo elkarteak garbitzeko prest nago. Euskalduna naiz.  
☎ 617 571 210

Umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna.  
☎ 632 915 647

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia.  
☎ 699 535 728

Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, asteburuetan. ☎ 699 535 728

Pertsona nagusiak zainduz egingo nuke lan, interna edo orduka.  
☎ 697 665 452

Nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteburuetan interna bezela lan egiteko prest.  
☎ 633 072 144

Nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 631 418 130

Mutil gaztea. Adinekoekin ospitalean gaua pasatzeko, adinekoak zaintzeko, elkarteak garbitzeko eta baserrian lan egiteko prest.  
☎ 632 652 658

Etxeak, bulegoak, portalak... garbitzen egingo nuke lan. Euskalduna naiz, eta esperientzia daukat.  
☎ 626 490 986

Nagusiak edo haurrak zaintzeko prest nago, astean zehar, orduka. Asteburuetan interna moduan. (Lucila)  
☎ 658 747 099

Orduka lan egiteko prest nago. Etxeak, elkarteak edo portalak garbituko nituzke.  
☎ 653 160 233

Adinekoak zaindu edota garbiketa lanak editeko prest nago. Interna edo orduka. ☎ 653 156 403

Nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 737 903

Neska gazte euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko.  
☎ 617 248 087

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ 632 882 532

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Jardunaldi osoz edo orduka.  
☎ 632 636 069

**Eskaintzak**

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidali curriculumak: [cvdenda@hotmail.com](mailto:cvdenda@hotmail.com)

**ETXEBIZITZAK.....**  
**Alokairua**

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarraren.  
☎ 627 230 784

**KINTOAK.....**

1957koen bazkaria uztailaren 1ean, Sigman. 13:00etan elkartuko dira Bolarokian, luntxa 14:00etan, eta gero, bazkaria. 55€ko sartu, ekainaren 28rako: 2101 0036 60 0128193893  
☎ 619 127 474 ( M<sup>re</sup> Jesus)  
☎ 662 173 220 ( Pili)

1952koen bazkaria ekainaren 17an. 12:30ean harrera, argazkia eta luntxa Txarridunan. 14:30ean bazkaria. 50 euro sartu, ekainaren 9rako: ES45 3035 0007 2100 71133665 (Laboral Kutxa).

**BESTELAKOAK.....**

Bilarra salgai.  
☎ 678 376 320 (Eli)



Etxeko katu bat jaso du KatuEder elkarrekin eta jabe bila dabil.  
☎ 605 772 880

**administradores**  
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzko Elkarrekin Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Garaje bat daukat garaje-komunitateko sotoan, hamalau eraikini dagokien eremu komun batean dauden lorategien azpiko aldean. Etxebizitza guztiek ez dute garajea, eta aldi berean, garajea duten guztiek ez dute etxebizitzarik eraikinean.**


Gaur arte, garaje-jabeek ordaindu dituzte zegozkien gastuak, nor bere garaje plazari dagokiona. Orain, baina, garajeetako batean hezetasun arazoak dituzte, itxuraz sabai gainean dituzten lorategiengatik. Eraikin horietan etxebizitza izan arren garajerik ez duten batzuek garbi esan dute ez dituztela konponketa gastuak ordainduko, uste dutelako garajeko sabaiaren egoera txarrak eragin dituela arazook, eta horrenbestez, uste dutelako garaje-jabeek ordaindu beharko lituzketela gastu horiek.

Filtrazio eta hezetasun arazo bat izanik, eta beraz estankotasun kontu bat, eraikin guztiari dagokion kontu bat da, Eraikingintza Antolaketaarako Legeak bizigarritasun baldintzatzat ezartzen duelako.

Beraz, komunitatea, hobeto esan mankomunitatea, konponketa hori bere gain hartzera derrigortua dago, patioa edo lorategi hori komunitatearena delako.

**AHOLKUA: Legeak dio komunitatearen betebeharra dela eraikina eta eremu komunak egoera onen mantentzeko egin behar diren obra edo lan guztiak egitera. Seguritasuna, bizigarritasuna, irisgarritasun unibertsala eta eraikinaren kontserbazio egokirako Administrazioak ezarritako baldintza guztiak bete behar dira.**

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Zorionak, **Jon**, gaur, ekainak 9, bi urte bete dituzulako. Muxu handi bat familia osoren partez.



Kaixo, **neska handi!** Zein as-teburu polita zure zortzigarren urtebetetzea ospatzeko. Zorionak! Maite zaitugu.



Zorionak, **Sare**, astelehenean 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **txapeldun!** 8 urte dagoeneko! Zorionak, Endika, familiakoen, eta bereziki, Markel eta Danelen partez.




Zorionak, **Noa!** Azkenean 5 urte! Ondo pasa eguna! Etxekoen partez.



Zorionak, **Alex!** Gure txapeldunak atzo 12 urte! Muxu bat etxekoen, eta bereziki, Mikel eta Luciaren partez.



Zorionak, **bikote!** Zuen eguna heldu da! Primeran pasatuko dugulakoan, bertsakadarik beroena eta zoriontsu izan! Kuadrilakoak.



Zorionak, **hirukote!** Gero eta handiagoak eta gero eta bihurriagoak. Ondo pasa zuen urtebetetzean. Muxu potolo bana etxekoen partez.



Zorionak, **bikote!** Heldu da zuen egun haundia eta disfrutatzia tokatzen da! Muxu potolo bat kuadrillakuen partez.

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**Uretatik babesteko tapoiak NEURRIRA!  
Babestu zure belarriak**

**STOP OTITIS!**

# sare

FISIOTERAPIA  
ZENTROA

BASARTE, 19, BEHEA  
Telf. 688 646 809  
[sarefisio@gmail.com](mailto:sarefisio@gmail.com)

## EKAINAREN 15ETIK AURRERA ZABALIK!

### IREKIERA SUSTAPENA:

Lehen saioan %20ko deskontu-txartela  
oparituko dizugu hurrengo saiorako.\*

HARTU ZURE TXANDA!

\* Uztailaren 15a arteko sustapena.

## 9 BARIXAKUA

**17:30** Kiribil. Kalegoen plazan. Elgoibarko Izarrak antolatuta.

**Segidan**, Ludo Ibiltaria egitasmoaren barruan, pailazoaren emanaldia. Kalegoen plazan.

**19:00** Kontzertua. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako talde finkoak. Herriko Antzokian.

**21:30** Bideo foruma: Haizeak antolatuta, 'Bagdad café' filma landuko dute Loredi Salegik dinamizatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 10 ZAPATUA

**10:00** Mintxetako aire libreko igerilekuak irekiko dituzte.

**14:30** Euskal Herriko arku tiraketa txapelketa. Zarta taldeak antolatuta, Mintxetan.

## 11 DOMEKA

**10:30** Dolmenen ibilbidea. Interesatuak Debegegan eman behar dute izena (943 820 110).

## 14 EGUAZTENA

**17:00** Ingeniaritza Dualari buruzko informazio saioa. IMHn.

**20:00** Biraka dantza taldearen jaialdia. Herriko Antzokian.

## 15 EGUENA

**20:00** Biraka dantza taldearen jaialdia. Herriko Antzokian.

## 16 BARIXAKUA

**18:30** 'Pied isla' argazki erakusketa. Ongarri argazkilari taldeak antolatuta. Kultur Etxean.

**20:00** Biraka dantza taldearen jaialdia. Herriko Antzokian.

**22:30** Kontzertua: Celtas Cortos eta Elgoibarko Udal Musika Banda. Kalegoen plazan.

## TRINITATE JAIK, Elgoibarren

### 9 BARIXAKUA

**20:30** Erromeria gidatua, Errebal taldearekin. Maalan. Elgoibarko Izarrak antolatuta.

### 10 ZAPATUA

**10:00** Trinitateetako azoka berezia.

**10:00** Elgoibarko baserrietan ekoiztutako produktuak salgai. Lekuederren.

**10:00** Elgoibarko baserrietan hazitako abereen erakusketa.

**10:30** Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako trikitilari eta txistularien kalejira.

**11:00** Kalitatezko produktuen dastaketa. Lumagorri oilaskoa, aire librea hazitako Basatxerri txerrien sahieskia eta hirugihera. Lekuederreko karpan.

**Ordu berean**, Elgoibarko baserrietako sagardo lehiaketa eta dastaketa. Maalako Jai Batzordeak antolatuta.

**11:30** Free Style baloi erakustaldia, Kalebarren plazan. Atabal elkarteak antolatuta.

**13:00** Herri Kirolen erakustaldi mistoa, Kalegoen plazan. Sigma Probaleku elkarteak antolatuta.

**14:30** Elgoibarko baserrietaren bazkaria, Lekuederreko karpan.

**18:00** Kalejira, Kalegoen plazatik hasita. Mauxitxa txaranga, hankaluzek, ekilibristak...

**23:00** Nagusien danborrada, Udal Musika Bandak lagunduta. Kalegoen plazan.

**1:00** Erromeria, Erokomeri taldearekin. Sutegixan. Maalako Jai Batzordeak antolatuta.

**4:00** Txokolate jana, Sutegixan. Maalako Jai Batzordeak antolatuta.

### 11 DOMEKA

**9:00** Diana, Udal Txistulari taldearekin.

**10:00** Artisau azoka, Lekuederren.

**11:00** Meza Nagusia, Parrokiako Abesbatzarekin.

**12:00** Umeen danborrada, Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta.

**17:00** Gaztelekuko eta Ludotetako lotogitipo lehiaketako sari banaketa. Maalako parkean.

**17:30** Kalejira: Erraldoi eta buruhandiak, zezenzikletekin. Elgoibarko dultzaineroek lagunduta.

## TRINITATE JAIK, Mendaron

### 9 BARIXAKUA

**19:30** Bizi Poza txarangaren kalejira, jaipei hasiera emateko.

### 10 ZAPATUA

**17:00** Zuhaitza jasotzea, kanpai errepika eta txapliguak.

### 11 DOMEKA

**10:00** Mendaroko txistularien kalejira.

**11:30** Meza Nagusia, Eleiz Abesbatzaren eta Ameikutzen partaidezarekin.

**Ondoren**, txistulari eta trikitilariak.

**12:30** Herri Kirolak.

### 12 ASTELEHENA

**11:00** Meza Santua, Trinitadeko baselizan.

**12:00** Ikastolako haurren bertso saioa.

**Ondoren**, Ion Ansozregi eta Larrañaga trikitilariak.

**14:30** Herri Bazkaria, Toki Alai jatetxean.

**20:30** Herri afaria Aizpe elkartearen, Ion Ansozregi, Larrañaga eta bertsolariekin.

\* Txartelak salgai Toki Alai, Aitz Beltz eta Txirristakan, 25 euroan.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

#### 09:00 - 22:00

9 Barixakua ETXEBERRIA

10 Zapatua FERNANDEZ

Goizez: BARRENETXEA

11 Domeka FERNANDEZ

12 Astelehena YUDEGO

13 Martitzena ORUESAGASTI\*

14 Eguaztena BARRENETXEA

15 Eguena IBAÑEZ\*

16 Barixakua GARITAONANDIA

#### 20:00 - 22:00

\* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:

BARRENETXEA (Elgoibar)

Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

#### 22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)

San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533

\* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Maiatzean hildakoak

- **Emiliano Marcos De La Torre**  
85 urte, maiatzak 4
- **Avelino Vazquez Gonzalez**  
71 urte, maiatzak 11
- **Imanol Gastesi Goenaga**  
76 urte, maiatzak 15
- **Miren Mendikute Elorza**  
94 urte, maiatzak 16
- **Miguel Arriola Irizar**  
74 urte, maiatzak 17
- **Francisco Javier Jimenez Aguilar**  
50 urte, maiatzak 19
- **Pilar Ariznabarreta Arozena**  
92 urte, maiatzak 20
- **Maria Pilar Alberdi Oruesagasti**  
85 urte, maiatzak 22
- **Fran Salazar Aguado**  
60 urte, maiatzak 23
- **Josefina Iturbe Larrañaga**  
87 urte, maiatzak 26



I. URTEURRENA

**Martina Alcibar Osa**

1917-08-22 / 2016-06-11

***Urte bat pasatu da  
zure irribarre gozoa ikusi gabe.  
Egunero sentitzen dugu zure falta.  
Pena handiarekin bihotzean.***

Sendiak



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Julen Ansola

## Irati Agirreazaldegi



Isasoa laino dago, Baionako barraraino... Hemen ere dena da behelaino, Elgoibar gainetik Anboto azpiraino. Iritsiko al gara haraino? Ala hobe amestu abiatu baino?

Gure burua ametsen lainoek estaltzen dute, baina tartean agertzen diren eguzki izpiek, badaukate herrirako norabidea erakusten duen gezia argitzeko adina bertute.

Norabidearen erdi soila da bidea. Bidean aurrera egin ezean, atzera, gure ametsetara goaz, ordea. Beraz, pausoz pauso lainopean ezkatututako bide horietatik abiatzea ez al da hobe?

Bideak du helmugak baino garrantzia handiagoa. Baina noren ametsetan ez dago helmugara iristeko gogo?

Biderik luzeena geldirik geratzea delako, hodei itxiak ez dira

izan behar inoren trabarako. Beraz, ametsen baitan oztoporik bada, gainditu beharko. Bideaz gozatuz helmugara iritsi behar dugulako.

Bidegurutzean abiatu gara, zalantzak amets bihurtuz gure pausok eramango gaituzten helmugara. Lainoetik zein gainetik ikusten edo ikusi nahi ditugun lekuetara.


Laino guztien gainetik eta sasi guztien azpitik ibiltzen omen zen Anbotoko Mari, eta guk sasiak zapaldu eta hodeien artean toki egingo diogu eguzkiari. Goizeko behe lainoa delako eguerdiko eguraldi onaren atari.

Euskal Herriko zero urdinak ez daitezten laino beltzez bete berriro. Ni ametsetatik esnatu gabe, lainoak beti hor egon badira, norbaitek hodei artera eramanez gero, ez da izango giro. Edo agian ostarte garbiak eta eguzkia ikusten ditudan aldiro amestuko dut dena argituko dela bidean pausok eman ahala astiro-astiro.

*“Ametsen baitan oztoporik bada, gainditu beharko”*



# INPLANTE PROMOZIO BERRIA!



Ekainaren 15-etik  
Irailak 15-era arte!

943 36 63 77  
[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)



Lasarte - Oria  
Ola kalea, 10

Elgoibar  
San Bartolomé, 22

Tolosa  
San Frantzisko, 39

**Aurrematrikula ekainak 5etik 16ra**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, ENPLAZAMENETIKETA  
EREFERENTZIA SAILA  
Lanbide Heziketa, Lanbide Eskola

HEZKUNTZA, ENPLAZAMENETIKETA  
EREFERENTZIA SAILA  
Lanbide Heziketa, Lanbide Eskola



### ERDI MAILA

- Administrazio kudeaketa
- Makineriaren elektromekanika
- Ibilgailuen elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta
- Soldadura eta galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Karrozeria

Eta eskaintza partzialean, arratsaldean...

- Erizaintzaren laguntza
- Soldadura eta galdaragintza

### GOI MAILA

- Administrazio eta finantzak
- Automozioa
- Haur-hezkuntza
- Metal erakuntzak

Eta eskaintza partzialean, arratsaldean...

- Automozioa
- Gizarteratzea